

GETXOKO GABONETAKO IX. ITSAS LASTERKETA



Parte hartzeko oinarriak – Lehiaketaren araudia

Lagun agurgarriak:

Honen bitartez, **GETXOKO GABONETAKO IX. ITSAS LASTERKETAN** parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. **Abenduaren 24an izango da, astelehena, 16:30etan.**

ANTOLAKUNTZA:

Getxoko Gabonetako IX. Igerialdia gure klubak antolatzen du, Getxo Igeriketa Waterpolok, honako hauen laguntzarekin: Getxo Kirolak, Bizkaia Irratia, Radio Popular eta Kantxa Kirol Moda.

DATA:

Egun bakarra: abenduaren 24a, astelehena, 16:30etan.

IZEN EMATEAK:

Getxo I Wen webgunearen bidez eman behar da izena: www.getxoiw.com . Ondoren dirua sartu beharko da kontu zenbaki hauetako edozeinetan:

Kontu korrontearen zenbakia:

- La Caixa: 2100 6445 37 2100101480 → IBAN: ES02 2100 6445 3721 0010 1480
- BBK: 2095 0307 14 3830533538 → IBAN: ES45 2095 0307 1438 3053 3538

Onuraduna: Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkarte.

Sarreraren **kontzeptuan igerilariaren izena eta abizena jarri behar dira**, probaren irteeran emango zaion txanoan parte hartzaile zenbakia jarri ahal izateko.

PREZIOAK

Izen ematearen prezioa **6 €** izango da parte hartzaile guztientzako.

Izen emateak 2018ko abenduaren 21eko, ostirala, 23:59ak baino lehenago egin behar dira.

Norbaitek data hori baino **beranduago** izena emanaz gero, **10 €** ordaindu beharko ditu izena emateagatik.



Edozein kontsulta egin nahi izanez gero edo azalpen gehigarriak nahi izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezketen helbide elektronikoa honen bitartez: getxoibke@gmail.com.

GETXOKO GABONETAKO IX. ITSAS LASTERKETA

DATA: 2018ko abenduaren 24a

KATEGORIAK:

- ABSOLUTUA
- BETERANOAK: 1968an edo lehenago jaiotakoak

SARIAK:

Gizonezkoen zein emakumezkoen kategorietako lehen hiru sailkatuek, absolutuan eta beteranoetan, garaikurra jasoko dute. Gainera, sari berezi bana izango da parte hartzaile nagusienarentzat eta gazteenarentzat.

TXANOAK JASOTZEKO LEKUA

Txanoak **Ereagako hondartzan** jaso ahal izango dira (turismo bulegoaren ondoko plazan) abenduaren 24an bertan, 14:00etatik 16:15era bitartean.

ITSAS LASTERKETAN BAIMENDUTAKO BAINUJANTZIAK

Edonolako bainujantziarekin edo neoprenoarekin egin ahal izango da igeri.

Getxo IWtik neoprenoa erabiltzea gomendatzen dugu.

ORDUTEGIAK-IBILBIDEA

Igerialdia 16:30ean hasiko da, eta ibilbideak 300 metro izango ditu, Ereagako hondartzatik Portu Zaharreraino.

MOTXILAK ETA OBJEKTU PERTSONALAK

Interesa duten parte hartzaile guztientzako poltsa bat banatuko da, haien objektu pertsonalak Portu Zaharrera eramateko.